

70 urte dira 1936ko gerra bukatu zela. Denborak, ordea, ez du frenteko lehen lerroan borrokatu zutenen memoria ezabatu. Marcelo Usabiaga, Meliton Manzanasek Donostian preso hartutako irundarra, garai hartako lekuko zuzena da.

«Borroka egin nahi nuen»

NEREA LIZARRALDE

San Martin kalean hartu zuten preso Marcelo Usabiaga (Ordizia, 1916), 1944ko azaroan. Regino Gonzalez eta Javier Lapeira kideekin batera atxilotu zituen Meliton Manzanasek frankista ezagunak. 1960 urte arte ez zen espetxetik atera.

Familia errepublikazalea zen Usabiagarena. 17 urterekin Irungo Gazte Komunistekin bat egin zuen. Muga ondo ezagutzen zuenez, hainbat pertsona lagundu zien bestaldera pasatzen. Norteko tren geltokian geratzen zen beraiekin.

Usabiagaren gurasoak Baionan bizi ziren. Lehen Mundu Gerrako urteetan aitagarriolari gisa ibiltzen Baiona eta Donostia artean. Ustekabea, Alemaniako urpekarri batek bolbora fabrika baten aurka tiro egin omen zuen Baionan. Leherketak herritarrak izutu egin zituen eta ihes egin zuten. Tartean, Usabiagaren gurasoek, ama haurdun zela. Kamioia hartu eta Ordiziara joan ziren. Bertan jaio zen Usabiaga.

«Igandero meza, fusilamenduak... apaizaren sermoiak ere izugarriak ziren kartzelan»

1936ko uztailearen 18an Parte Zaharrean zen Marcelo Usabiaga. Gailu batzuk, multikopista batzuk UGTri saltzera joan zen aitarekin: «800 pezetatan saltzen zituzten dendetan. Guk, ordea, 400 pezetatan. Madrilen altxamendua izan zela entzun ginen. Korrika joan nintzen Irurera. Gazte Komunisten kidea nintzen eta jendea mobilizatzen hasi ginen: lagunak, kama-radak... Armak hartu eta gerrilak sortu genituen. Boluntarioak ginen guztiak, ez zegoen ejerzitorik».

Frankisten aurka borrokatu zuen nonahi: Aiako Harria, San Martzial, Erlaitz, Arkale... Bere anaia Pikoketan fusilatuta zuten, beste hainbat gazte irundarrekin batera. «Guadalupeko gotorlekuan izan nintzen. Han ez zegoela ezer egiteko esan ziguten eta handik Donostiara ihes egiteko agindua eman ziguten. Hondarribiara joan eta Hendaia iritsi nintzen ontzi batean. Frantziarrek, ordea, ez zuten exiliaturik nahi. Bodelera eraman ninduten eta, trenez, Bartzelonara iritsi nintzen, beste hainbat euskaldun bezala. Euskal kolonia

zegoen bertan. Bartzelonako UGTeko bizkarzain izan nintzen. Baina... 20 urterekin eta bizkarzain izan? Ez, nik borroka egin nahi nuen». Madrilera joan zen eta Katalunia eta Euskal Herriko taldeen elkartu zen: «Ezkeriarrak ginen. Nazionalistak ez nuen ezagutu. Madrilan aurkako erasoaren zain ginen. Urriaren 30ean, nire urtebetetzean, txerrikume erreka prestatu zidaten nire lagunak. Egun hartan bertan hasi ziren erasotzen, Navalcarneroetik. Hilerrian, herriaren sarreran ezkutatu eta handik zelatzeko esan ziguten. Mairu batzuk ikusi genituen, faxistekin. Gogoan dut ere Capitol zine-man *Guerrillero rojo* film errusiarra ikusten ari ginela kanoikadak entzun genituela. Ez genekien filme-koak edo kalekoak ziren...».

Madriletik iparralderantz joan zen, Norteko kanpainan borrokatzera. Bilbo, Santander, Xixon... Frankistek Xixon hartu zutenean arrantza ontzi batean ihes egin zuen Baionara. Berriz ere muga pasa zuen, errepublikarren eremura itzultzeko. Hegazkin pilotu izatea zen bere ametsa. Azkenean, Cartagenan, aire erasoan aurkako brigadan sartu zen. Errepublikarren fronte guztietan borrokatu zuen. Gerra, ordea, amaitzeaz zegoen eta argi zegoen frankisten garaipena: «39ko martxoan zen eta ihes egin ahal izateko Alacantera joan behar genuen. «Auto bat lortu genuen eta biderei ekin genion. Gosea pasa genuen. Egunez ezkutatu egiten ginen. Valentzia frankistez beteta zegoen. Irungo mediku bat aurkitu nuen Alacanten. Muga pasa ahal izateko dokumentazioa lortzeko eskatu nion, baina ez nuen gizon hura berriz ikusi. Azkenean, Sagunton preso hartu eta Valentziako Portacelira eraman gintuzten».

Moja batek heriotz zigoretik salbatu zueneko

Irun erretzea egotzi zioten: «Bane-kin salaketa horrekin hormara nihoala. Nik ezetz eta ezetz esaten nuen, ez nintzelan izan. Bat batean gauza batekin gogoratu nintzen. Irungo Gurutze Gorrian izan nintzen tiro batez zauritu nindutene-koaz. Moja batek sendatu zidan zauria. Bizikleta proba batean, 16 edo 17 urterekin, Oiartzunen erori nintzenean ere moja berak sendatu zidan. «Zu hemen berriz?», esan zidan. Preso hartu zidatenean hauxe bera kontatu nien. Sor Carmen ize-



Marcelo Usabiaga, Parte Zaharrean. NEREA LIZARRALDE

«Komandantea zalditik jaitsi eta zein lanbide nuen galdetu zidan; egia esan nion, merkataritza irakaslea nintzela»

neko moja batek sendatu zidala esan nien. Moja batekin harremanetan jarri eta hark, Irun erre zuten egun hartan, Frantziara ebakuatu egin nindutela konfirmatu zuen. Usabiaga heriotz zigoretik libratu zen, baina 30 urteko espetze zigorra egokitu zitzaion.

10.000 preso ziren bertan, Portacelín, eta Usabiagak gogoan ditu han pasatako egunak: «Igandero meza, fusilamenduak... apaizaren sermoiak ere izugarriak ziren: «Francoren justiziatik salbu gertatzen bazarete, Jaungoikoaren justizia zuen gainean eroriko da...».

Behin, kartzelako patioan zirela, komandanteak 37ko kintako tornulari guztiak ateratzeko agin-

du zuen: «Ni ez nintzen tornularia, baina arriskatu egin behar nuen. Valentziara eraman ziguten auto parke batera. Tornulari izateko azterketa egingo dizu et, esan zuen komandanteak. Hil egingo nindutela pentsatu nuen. Orduan pauso bat aurrera eman, besoa altxa eta «Arriba España! Nik ez dut hemen gorriekin egon nahi. Espainia eraiki nahi dut». Komandantea zalditik jaitsi eta zein lanbide nuen galdetu zidan. Egia esan nion, Donostian merkataritza irakaslea izan nintzela. Bulegora bidali zidan administrazio lanak egiteko».

Valentziatik Arronako (Bizkaia) destakamentu penalerara eraman zuten eta handik ihes egitea lortu zuen. Mugalari lanetan hasi zen Pirinioen bestaldean, gerrilarien gida gisa, 1944an, Donostian preso hartu zuten arte. 21 urteko espetze zigorra ezarri zioten.

Burgoseko espetxean 15 urtez komunismoan bizi izan zen Usabiaga: «Orain krisiaz hitz egin be-

terik ez da egiten. Burgosen ez zengoserik, ezta pobrerik ere. Esperientzia hori izan genuen behintzat. Komunak sortu genituen, dena zen kolektiboa. Bakotzak etxetik zer jasotzen zuen esaten zuen eta ez zuen inork gezurrik esaten».

Ausardiaz eta kemenez borrokatu zuen Usabiagak. Fusilamenduen beldur zen. Saguntan preso hartu zutenean heriotz zigorrera kondenatutako presoan ziegetan izan zenekoa ez du ahaztu: «Ez nekien tiro egin baino lehen makurtu egingo nintzen. Ziegan probak egiten nituen. Paretaren kontra jartzen nintzen. Zutik mantentzen nintzen jakin nahi nuen. Hainbeste gauza entzun eta ikusi nituen gerran...».

Urriaren 93 urte beteko ditu Marcelo Usabiagak. Borrokalari kementsua ez ezik, kirolari aparta ere bada irundarra. Egutero, bizikleta hartu eta 30 bat kilometro egiten ditu.